

Ondarroa: hondakinak batzeko sistema erabakitzeko prozesua

Bigarren saioak:

Gaiak:

1. Sarrera eta kokatzea
2. Aukeren ezaugarriak, indarguneak eta ahuleziak
3. Etorkizuneko bilketa-sistemaren ezaugarriak
4. Balorazioa

Asistentzia:

55 lagun

Emakumeak 38 (% 69)

Gizonak 17 (% 31)

	< 25	25-50	50-65	>65
E		10	12	16
G	1	8	3	5
Guztira	1	18	15	21

Esan zirenak:

GUZUR ETXI

Ondarroa: hondakinak batzeko sistema erabakitzeko prozesua

Galderak	<p>Galderak edo aipamenak:</p> <ul style="list-style-type: none">• Errefusan zer sartzen da? Hautsa, zigarro mutxikinak, afeitatzekoak... oso gauza gutxi• Pardelak egunero batzen dira.• Hainbat galdera agon dira zer-nora bota behar den.• Atez ate organikoa eta errefusa bilduz gero, erreziklatze-tasa hain handia lor daiteke? EZ, nahi ez duenak beste kontenedoreak zabalik daudenez, besteetara botatzen dute• Edukiontzi kolektiboak ipiniz gero, erreziklatze-tasa hain handia da? Europako herrialde batzuetan % 70-80 lortzen dute, asko jota. Kasu honetan ardura indibiduala izan ordez, ardura komunitatearena izango litzateke.• Arinago edo beranduago egin beharko dugu. Europak ere hala agintzen badu...• Ezinduak, adinekoak, hauekin nola egiten da? Normalean hezitzaileen bidez egiten da
-----------------	---

Ondarroa: hondakinak batzeko sistema erabakitzeko prozesua

Ezaugarriak	<p>Nolako izan behar du Ondarroako bilketa-sistemak etorkizunean? Zer ezaugarri izan behar ditu?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zenbat birziklatu beharko genuke? <ul style="list-style-type: none"> ○ % 70 gutxienez ○ Ahalik eta gehien • Zenbat errefus sortuko dugu? <ul style="list-style-type: none"> ○ % 30 asko jota ○ Ahalik eta gutxien • Zabortegeira zenbat gutxiago eramango dugu? <ul style="list-style-type: none"> ○ % 65 gutxiago ○ Aukeratzen den sistemaren arabera, baina derrigorrezkoa dena bakarrik • Zenbat aurreztuko dugu dirutan? <ul style="list-style-type: none"> ○ Onura ekonomikoaz aparte, ingurumenari egingo diogun onura ikusarazi beharko litzateke ○ Diru asko gastatzen dugu honetan, garrantzitsua da ondo pentsatuta egitea • Noren betebeharra da birziklatzea? Nola lortu hori? <ul style="list-style-type: none"> ○ Danon arazoa eta danon ardura da. ○ Kanpainak egin beharko dira herritarrak sentsibilizatzeko (kalendario bat, antzerkia, etab.), betetzen ez dutenentzako isunak ipini beharko dira • Jarraipena nola egin beharko da? Klabea izango da ondo antolatzea hasieratik. Lehenengotan ez dugu ondo egingo. Elkar errespetuz jokatu beharko dugu. • Kontutan hartzekoak: ordutegia,
	KAMIÑAZPI

Ondarroa: hondakinak batzeko sistema erabakitzekeo prozesua

Galderak	<ul style="list-style-type: none">• Organikoa batzen bada atez ate edo auzokonposta egiten bada, atez atekoa sobran egongo litzateke?• Errefusa batzen denean, zer egiten da horrekin? Erre?• Plastikoaren tratamendua zer? Nora eramaten da?• Zenbat denboran emango da oraingo sistematik berrirako aldaketa?• Buzoneatu beharko litzateke, buzoneo potente bat informazio objektiboarekin.• Informatzea klabea da. Aholkua Udalarari informazioa herri guztietara zabaltzeko. Izan ere, Ondarroan folloia aurreikusten dut, politika tarteko gainera!!!Argi eta garbi etxez etxe informazioa zabaltzea.• Ondarroak lurrarekin duen arazoa (aparkalekuak...) konponduko genuke atez atekoarekin. Aparkalekuak irabaziko lirateke.• Datu ekonomikoak ere aipatu beharko lirateke informazioan.• Osagarri izan liteke hondakin gutxiago sortzeko truke-azokak egitea...• Atez atekoa Ondarroan bakarrik jartzeko aukera legoke?• Planta Ondarroarako bakarrik ez litzateke egingo. Beste plantaren batera eramateko aukera badago, Gipuzkoara.• Argi dagoena da gehien birziklatzeko aukerarik onena atez atekoa dela, ez dago zalantzarik. Urteak dira European egiten dela, hortaz...• %25ak birziklatzen badu egun, gero %75ak, txip aldaketa handia da.• Bada beste herrietako esperientziarik? Ondarroako bezalako (8.000 biztanle inguruko beste herri bat) herrietan zer aukeratu izan da?• Atez atekoa da gehien birziklatzen duena, baina aldaketarako zailena agian, ez?• Pertsona helduok ere koherentzia erakutsi behar dugu gure bizitzan. Umeak eskolan birziklatzen ari dira eta gurasoek etxean ez birziklatzea?• Txakur-kaken kexa adierazi nahi dut. Udalekoak hemen daudela aprobetxatuta. Ez du lotura zuzenik, baina esan nahi nuen. Badakit Udala neurri batzuk hartzen ari dela, baina ez dakit zenbaterainoko kontrola edo egingo den.
-----------------	--

Ondarroa: hondakinak batzeko sistema erabakitzeko prozesua

Ezaugarriak	<ul style="list-style-type: none"> • Zenbat birziklatu beharko genuke? % 60-80 bitartean • Zenbat errefus sortuko dugu? Ahalik eta gutxien • Helburuak mailakatuak ipini, helburu handiekin ez hasi hasieran. • Noren betebeharra da birziklatzea? Nola lortu hori? <ul style="list-style-type: none"> ○ Derrigorrezkoa izan behar da. Bestela egiten ez duenak egiten duena kaltetzen du. ○ Errauskailurik inork ez du bere etxe ondoan izan nahi. ○ Beste sistema batzuk ezarri dizkigute eta egin izan ditugu, hau ere bai. ○ Kontzientziazio kanpainak egin behar dira: buzoneoa, Udal Barri berezia. Produktua ondo saldu behar da, edozein dela. • Jarraipena nola egin beharko da? <ul style="list-style-type: none"> ○ Ez da adostu, baina isunak ezartzearen aukera komentatu da. Beste herri batzuetan nola egiten den galdetu da: Ordenantzak landu dira, ezarri eta 6 hilabetera hasi dira. Boikota oso nabarmen egiten ari direnekin hasi dira planteatzen zerbait serioa. Oraindik isunik ez da ipini. • Orioko eredia izan daiteke guretzako egokia herriaren ezaugarriengatik
Balorazioa	<ul style="list-style-type: none"> • Berdea (9), ingurumena, esperantza • Marroia, konfliktiboa delako • Baltza, batzuk oso zehatz egiten dugu, gure moduko beste askok ez ordea.
KOFRADI ZAHARRA	

Ondarroa: hondakinak batzeko sistema erabakitzeko prozesua

Galderak

- Ondarroako ordenantzak derrigortzen du hondakinak frakzioka banatzea. Beraz, 5.edukiontzia “borondatezkoa” dela ez da egia bere horretan.
- Ni atez atekoaren alde nago eta jartzekotan ere, 5.edukiontzia organiko osoarekin. Orain, pisa beharko litzateke ea merezi duen herrian foiloi horiekin hastea, Gipuzkoan bezala.
- Orain 74€ / TNko ordaintzen dugu eta gero 45€ / TNko ordainduko genuke sukaldatu gabekoarengatik.
- Datu ekonomiko guztiak argi esatea komeni da.
- Auzokonpostako gunek bat dago, baina hirurak jartzen direnean, 5.edukiontzi gutxiago beharko lirateke 33 edukiontzi marroi beharrean.
- Burdinazko zintzilikarioak Ondarroan egindakoak dira,
- Kontrol-sistemekin zalantza.
- Atez atekoa jarri behar izan zen Usurbilen borondatezko sistemetan borondate oneko jendearen azpian borondaterik gabeko jendearen jarrera ezkutatzen delako. Eta gaur egun, %0 erreziklatzen dutenak asko daude. Zaborrarekin kristoren arazoa daukagu eta prest ez daudenak ere nola sartu txalupa berean ez badute aurrera egin nahi? Hor dago gakoa. Gero, garbiagoa, ekonomikoagoa, politagoa...nahi duzuna. Ametsera iritsi nahi badugu, ezin liteke onartu 2014an oraindik jendeak ez birziklatzen jarraitzea.
- Atez atekoa oso komodoa da. Ondarroan alde zaharra handia izanda, gainera, etxe atarian jasotzeko aukera izango genuke eta ez orain arte bezala, urrunera joan beharra.
- Egiten (birziklatzen) ez dutenei faktura bikoiztu ez, hamarkoiztu egin beharko litzaieke, hori da bidea, agian. Nik ez dut ordaindu behar sortu ez dudanarengatik.
- Herriz herri genozidio bat egiten gabilta. Aldaketa txiki bat proposatzen denean, kristorena kostatzen zaigu. Minimo txiki batekin birziklatze-tasa hirukoiztu egingo genuke. Orduan, zeri diogu beldur? Nik ideiak oso garbi ditut, atez atekoa, autodisziplina derrigorrezkoa da, zamarrarekin ere bai. Aldaketa txiki batekin kristoren pausoa egiten dugu. Bileretarako deialdia modu askotara egiten da eta zeinek baldintzatu behar gaitu orain? Paso egiten duten horiek?
- 1.aukeran diru-laguntza egongo dela aipatzen da eta 2. Eta 3. Aukeretan laguntzetarako zailtasunak. Diputazioa behartu beharko da horietan ere laguntzeko.

Ondarroa: hondakinak batzeko sistema erabakitzekeo prozesua

	<ul style="list-style-type: none"> • %50 ezingo litzateke birziklatu 5.edukiontziaekin? • Kontzientzia-falta da kontua. Porrot handiena zein litzateke 3 aukeretatik bileretara etorri ez direnak parte hartuko ez balute? Onena atez atekoa litzateke, baina hanka sartzea ez litzateke onenera jotzea? Zergatik ez erdibidekoa? • Kontzientziatu gabekoen ordainetan kontzientziadunek ordaintzea ez dut nahi. • Dena ez da gautik biharrera aldatuko. Konpostaje planta eraiki behar da...Agian, 2014a beharko genuke eta urte hori izango genuke kontzientziazio kanpainarako. • BFAk konpostaje plantarako laguntzarako baiezkorik ez, baina ezezkorik ere ez du eman. • Inposaketa? Gabilta besteei inposatzen errauskailua...Errauskailua Ondarroan jartzeko esango bagenu? • Problemarik handiena hemen egon ez direnei garbi uztea gehiago ordaindu beharko dutela prest ez daudenak • Euren komodidadea da. Aukera izan dugu berba egiteko eta ez baduzu egin ez duzulako nahi edo ahal izan. • Zenbat aurreztuko genuke joan etorrietan konpostaje planta eginda? Horrekin alderatuta, egin beharreko inbertsioa (milioi 1) ez da ezer. • Eta inbertsio hori urte batean beno, baina kontratu baten iraupenean? Zortzi bat urtean, adibidez? (8 milioi)
<p>Balorazioa</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Berde esperantza • Berdea. Konpostatzen det orain arte dena. • Saioa ez, egoera beltza baloratzen dut.Zenbat lagun gauden eta gaudenon artean nola gauden. • Olatu berdeak eta mendi urdinak. • Danon artean egin daigun zorioneko Ondarroa. • Laranja. Eguzkiak irteten duenean aurrenengo kolorea eta goizean goizeko indarra. • Laranja, ea indarra ematen digun. • Marroia, lurra eta konpostaren kolorea.
<p>Sortzaile handiak</p>	

Ondarroa: hondakinak batzeko sistema erabakitzekeo prozesua

Galderak	<ul style="list-style-type: none">• Zergatik dauden 5. Edukiontziak itxita edo giltzarekin: libre utziz gero, jendeak ez duelako behar den hondakina botatzen, eta horren kopurua % 10-15ekoa izanez gero, atzera botatzen dutelako eta dena errefusa balitz bezala hartu behar delako.• Eta portua? Honen barruan sartuko da? Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoa da. Ahaleginak egin dira, baina Udalak ez dauka batere eskumenik.• Nola irteten da diruaren aldetik? Merkeagoa da?• Nola batuko da atez atekoa Alde Zaharrean, hain kale estuak izanda?• Posteak edo kuboak lurrean ikustea ez da batere polita, estetikoki itsusia da, eta jendeak pegak ditu.• Oso jende gutxi hartu du parte prozesuan. Hemendik irizpide batzuk ateratzea ondo dago, baina zalantza zenbaterainoko babesa daukan, bilketa-sistema baten alde egiteko. Beste esfortzu bat egitea mereziko luke honelako erabaki bat hartu aurretik, jende gehiagorekin. Egia da ardurakidetzarena, baina behartuta baino gehiago, izan beharko luke konbentzimenduarengatik, jendeak hala nahi duelako. Eman den informazioa (sistema bakoitzaren ahuleziak eta indarguneak) nahikoa bideratuta dago, eta ahulezia/indargune bakoitzarentzat erraza litzateke kontrakoa proposatzea. (Argitu dugu horiek ez direla geuk eginak, baizik eta bilerotan esandakoaren laburpena, bere horretan).• Eskoletan birziklatzen da, egiten da. Hori bizi dute umeez eta herri-mailan egitea ez da ikusten hain zaila. Umeez ari gara batzen, eta eskolan egiten denak isla izan beharko luke etxean eta alderantziz ere bai, etxean egiten denak eskolan.• Garrantzitsua da bilketa-sistema erabakitzean eskualde osokoa kontuan izatea. Ez gaude bakarrik, eta beste herriek zer erabakitzen duten, guk ere antzera jokatu beharko dugu.• Hau guztia landu egin behar da. Ez da nahikoa informazioa ematea, hori landu egin behar da, jendearekin egon, hitz egin, konbentzitu. Taldeekin egon, adibidez, kirol-taldeekin... Jendearen jarrera aldarazi behar dugu.
-----------------	--

Ondarroa: hondakinak batzeko sistema erabakitzeko prozesua

Ezaugarriak:

- ✓ Zenbat birziklatu beharko genuke?
 - % 60-80 bitartean
 - % 70 gutxienez
 - Ahalik eta gehien
- ✓ Zenbat errefus sortuko dugu?
 - Ahalik eta gutxien
 - % 30 asko jota
- ✓ Helburuak mailakatuak ipini, helburu handiekin ez hasi hasieran.
- ✓ Zabortegira zenbat gutxiago eramango dugu?
 - % 65 gutxiago
 - Aukeratzen den sistemaren arabera, baina derrigorrezkoa dena bakarrik
- ✓ Zenbat aurreztuko dugu dirutan?
 - Onura ekonomikoaz aparte, ingurumenari egingo diogun onura ikusarazi beharko litzateke
 - Diru asko gastatzen dugu honetan, garrantzitsua da ondo pentsatuta egitea
- ✓ Noren betebeharra da birziklatzea? Nola lortu hori?
 - Danon arazoa eta danon ardura da.
 - Derrigorrezkoa izan behar da. Bestela egiten ez duenak egiten duena kaltetzen du.
 - Errauskailurik inork ez du bere etxe ondoan izan nahi.
 - Beste sistema batzuk ezarri dizkigute eta egin izan ditugu, hau ere bai.
 - Kontzientziazio kanpainak egin behar dira: buzoneoa, Udal Barri berezia. Produktua ondo saldu behar da, edozein dela.
 - Kanpainak egin beharko dira herritarrak sentsibilizatzeko (kalendario bat, antzerkia, etab.), betetzen ez dutenentzako isunak ipini beharko dira
- ✓ Jarraipena nola egin beharko da?
 - Klabea izango da ondo antolatzea hasieratik. Lehenengotan ez dugu ondo egingo. Elkar errespetuz jokatu beharko dugu.
 - Ez da adostu, baina isunak ezartzearen aukera komentatu da. Beste herri batzuetan nola egiten den galdetu da: Ordenantzak landu dira, ezarri eta 6 hilabetera hasi dira. Boikota oso nabarmen egiten ari direnekin hasi dira planteatzen zerbait serioa. Oraindik isunik ez da ipini.
- ✓ Orioko eredia izan daiteke guretzako egokia herriaren ezaugarriengatik

Ondarroa: hondakinak batzeko sistema erabakitzekeo prozesua

Kontuan hartzekoak:

- ✓ Ardurakidetzaren bidetik landu behar da, behartuta baino hobeto. Konbentzimenduagatik, jendeak hala nahi duelako.
- ✓ Borondatezko sistemetan, borondate oneko jendearen azpian borondaterik gabeko jendearen jarrera ezkututzen delako.
- ✓ Aldaketa txiki batekin kristoren pausoa egiten dugu.
- ✓ Prozesuak babes nahikoa eman du? Parte-hartzea nahikoa izan da? zalantza zenbaterainoko babesa daukan
- ✓ Egiten (birziklatzen) ez dutenei faktura bikoiztu ez, hamarkoiztu egin beharko litzaieke, hori da bidea, agian. Nik ez dut ordaindu behar sortu ez dudanarengatik.
- ✓ Ordutegia